

Noaúa!!!

www.noaúa.com



Usurbil, Europako legedia
betetzen duen bakarra



Asteburu honetan hasiko dira

Santio jaiak Zubietan



Zumeta Jatetxea

Ondo pasa Sanestebanak!

Astelehenetik igandera

- **Menu Berezia 20€** Aukera ederra
- Degustazioko menua
- Karta

Astelehenetik ostiralera

- Eguneko menua

Igandetik ostegunera

- Gaez itxita
(Erreserba eginda zabaltzeko aukera)



Txokoalde auzoa, 34 · USURBIL · ☎ 943 362 713

www.iruindagardotegia.com
www.astiazaransagardoak.com



Ondo pasa Santioak!

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak

Petritza bidea z/g, Zubieta
943 361 229

SANATORIO  **de USURBIL**
USURBILgo SENDATEGIA



San esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
Medikua: sanasur@facilnet.es / Administrazioa: sanadire@facilnet.es



Ondo igaro festak!

Albistea iruditan !!

Ziortzako kanpaldia, bertan behera

AH1/N1 gripeaz kutsatutako bigarren Akasua eman da Ziortzako kanpaldian. Larunbat goizean izan zuten horren berri. Pasa den igandean, hain zuzen, bigarren txanda hastekoa zen. Eta uztailearen 26an, hirugarrena eta azkena. Baina Ziortzakoek kanpaldia bertan behera uztea erabaki dute. Beraz, azken bi txandak ez dira egingo. Izan ere, azken bi txandatan umeak txikiak dira eta ez dute arriskurik hartu nahi. Larunbatean, bigarren kasuaren berri izan eta berehala, bigarren txandako guraso denei eman zitzaizen abisua.

Ziortzakoek eskerrak eman nahi dizkiete gurasoei. Mainer Makazagak adierazi digunez, "guraso denen erantzuna oso ona izan da. Eskertu dute gure lana eta askok euren laguntza eskaini digute".



ASTE BURU HONETAN BILDUKO DITUZTE KANPALDIKO GAUZAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

DEBAGOIENA, ATEZ ATEKOARI BEGIRA **5. OR.**

ETXEBIZITZEN GAIA HIZPIDE **6. OR.**

MERKATARITZARI BURUZKO DIAGNOSIA **8. OR.**

KIROLDEGIKO TABERNA IREKIKO DA **19. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Otar-Goxo
Elkargutak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186



AITOR LANDALUZE

Xirrixti-Mirrixki

Lehenengo batean etxeko terrazan nengoela bi katuen larteko elkarrizketa entzuterik izan nuen. Ni entzuten nengoela ez ziren konturatu eta lasai asko bata bestearekin kontu kontari ari ziren. Bata beltza eta bestea zuria, eta beltza ari zen istorio bitxi hau kontatzen. Lehenengo gauean kalez kale omen zebilela mokadu baten bila:

Aurrena anbulategi inguruan; ondoren parkera, ea umeren batek bokata ahaztua utzi duen edo; baina ezer ez, badakizu udaran oporretara ez doana hondartzara doa edo ... berdin du ez dute meriendarik ahazten. Ba demara bidean nintzela musika leun bat entzutea iruditu zitzaidan. Aurrena txalaparta doinu goxoa, eta bigarrenik gitarra bat. Kontu handiz hurbildu nintzen eta, han ze koardila topatuko nuen, basotarrak! "Basotarrak?, baina herrira hurbiltzea ez dute gogokoa eta!", erantzun zion katu zuriak. Beltzak kontua jarraitu zuen:

Bai han ziren denak, Zumetaren muralaren aurrean. Aliri eta Santuenea Zubietako lamiak dantzan gustukoa duten bezala, beren ile luze horia astintzen; txosnan jotake lanean Erroizpeko galtzagorrik, ezer edan nahi ez zuenari ere beti zerbait ateratzeko prest. Txosna ondoan galtzagorriei lana eman nahian, Etumeta eta Lapurtokietako jentilak edan eta edan eta beraien ondoan Tartalo sekula-

ko itsuarekin. Basajauna, eta basandereak koska batean eserita zeuden, burutik oinetarainoko ile rasta ederrez apainduak, kanta guztiak ezagunak zituzten eta ez zioten kantatzeari utzi gau osoan. Olentzero bera ere etorria zen, oporretan dago eta halako parrandatxoak gogokoak ditu, pipa hortzean zuela eserita zegoen, kapoiak ere bazituen arrautzatxoekin, meriendatzeko botila arduakin. Irisasiko iratxoak ere harritzekoa, txintxo-txintxo han ziren kantariari begirik kendu gabe, ondoan Anarrekako mamurrak ere eta hauek ere arretatsu eta geldirik. Pentsa kantaldi handia izango zen zein Gaueko, Akerbeltz eta Mari bera ere etorri ziren. Mari lehenengo lerroan jarri zen, tarteka laino batean lurretik altxatzen zen beste batzuetan sua bezala piztu eta beste batzuetan, kantaren batek hunkitzen zuenean, euritan desegiten zen beste guztiak bustiz. Eta azkenik noski! Usurbilgo sorgin zaharrrak keinuka ilargiari. Azkenean ez dakit zenbat bis eta gero eguzkiaren lehen printza atera baino lehen Mikel Laboak eta Jexux Artzek lotsaturik nola ez, eskertu zuten ikusle aparta horren berotasuna eta lehen printza azaldu zenerako dena desagertua zen, oholtza txosna izakiak eta musikariak ere.

Nik ez dakit, baina bada katuek pertsonok ikusten ez ditugunak ikus ditzaketela esaten duenak.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Maite zaitut Arrantzale!!

Nola igarotzen den denbora, laguna! Dagoeneko 19 urte bete dira, abuztuaren 21 beltza hartatik, fisikoki utzi gintuzun egun hartatik, eta fisikoki diot, ongi baitakizu soilik gogoratzen eta maitatzen ez ditugunak ahazten eta hiltzen direla, eta zu (zuek; Joxe Martin eta Nazkaz) uneoro gogoan izanik, maitaturik, ez zaituztegu ahazten, bizirik jarraitzen duzue gure artean, nola bestela!

Urte hauek oso azkar igaro dira, gure herrian mila gauza gertatu direlarik eta ziztu bizian gainera. Urte hauetan une gozoak eta ez hain gozoak bizi izan ditugu. Gatazka politiko hori gairidituzetik inoiz baino gertuago egon gara, baina

beste behin ere etsaiak gure herritarren itzaropena zanpatu du. Hala ere, eta oraingoz lortu ez dugun arren, asko aurreratu dugu. Eta etsaiak bere helburua lortu ez duenez, Euskal Herriaren aurkako gerra estrategia bete-betean berrindartu du: atxiloketa eta espetxeratu, tortura latzak eraginez, espetxeko bizi baldintzak gogortu eta gerra zikina berriro agertu direla, baina gurekin jai dute, tinko eusten baitiogu eta baita eutsiko ere, argi baitugu ez digutela ezer ere oparituko eta borroka dela bide bakarra gure ametsak errealitate bihurtzeko. Niri dagokidanez espetxe frontean borrokan darrat, une honetan Langraitzeko kartzelan

nago, azken urteetan nire curriculuma dezente loditu baita espetxe ezberdinak ezagutzeari dagokionez.

Beno, Arrantzale, agurtzen hasiko natzaizu, baina zin dagizut borrokan jarraituko dudala gure ametsak errealitate bihurtu arte, zintzotasunez eta koherentziaz, eta jakin badakit, asmo honetan eta beste hainbatetan ere ondoan izango zaitudala, bultza eta bultza lortu arte. Muxu eta besarkada iraultzailea, maite zaituen lagun gatibu honen aldetik! Borrokkak merezi du! Jo ta ke askatasuna lortu arte!

Barrio, Langraitzen espetxeratutako Euskal Preso Politikoa*

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Usurbil, legedia betetzen duen udalerrri bakarria

Europatik datorren zuzentzerako zabortegira bota daitezkeen materia organikoaren kopurua arautzen du, eta, beranduekin, 2009ko uztailaren 16rako eskatzen zuen kopuru hori gutxitzea. Gipuzkoako gainerako herriek ez dute horrelakorik lortu, ez baitute materia organikoa bereizita jasotzeko sistema egokirik ezarri.

Atez ateko bilketa selektiboari esker bete du Usurbilek egutegia. Zabortegira jaurtitako hondakinei buruzko Europako Zuzentarauak (1999ko apirilaren 26ko kontseiluaren 99/31/CE) gainditu egiten du estatuko legedia (abenduariaren 27ko, 1481/2001 Errege Dekretua), eta udalerririak behartu egiten ditu zabortegira

botatzen duten materia organikoa pixkanaka-pixkanaka gutxitzera. Horrela, metano-isuriak saihestu nahi dira, meta-noak berotegi-efektuan eragiten duelako; alegia, aldaketa klimatikoaren erantzule zuzena delako.

Epemuga Zabortegira bota daitezkeen hondakin biodegradagarrien gehienezko kopurua

2006/07/16 1995an jaurti zenaren %75

2009/07/16 1995an jaurti zenaren %50

2016/07/16 1995an jaurti zenaren %35

Atez ateko bilketarekin, Usurbilek, 2016rako aurreikuspenak betetzen ditu 2009an. Ondorioz, ez luke helburu horiek erdiesteko Gipuzkoak aurreikusten duen erraustegiaren beharrik izango.



ATEZ ATEKO EREDUARI BEGIRA DAUDE INGURUKO MANKOMUNITATEAK.

Debagoieneko mankomunitatea, atez ateko sisteman pentsatzen

Usurbilgo bilketa-ereduak badirudi jarraipena izango duela. Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Batzordeak lehengo astean egin zuen bileran, hondakinen atez ateko bilketa selektiboa ezartzeko azterketa egitea erabaki zuen aho batez.

Azterketa 2009ko iraila eta azaroa bitartean egingo da, eta hiru atal jorratuko ditu:

- Egungo egoeraren diagnostikoa.
- Hondakin organikoak autokontzestatzeko aukeren azterketa.
- Bideragarritasun ekonomikoari

dagokion azterketa.

Azterketa Jordi Colomer-i enkargatu dio Debagoieneko mankomunitateak. Colomerrek esperientzia zabala du atez ateko bilketa-sistemak ezartzen Katalunian, eta Usurbilen ere aholkulari aritu da azkeneko hilabeteetan.

Ika-mika !!

Elkarrizketarako eskubidea! Inposaketarik ez!

UKEn, Franco garaiko jarrerak oraindik erabiltzen direla aurten ikusi ahal izan dugu. Eta ikusteaz gain, badirudi ez dela gustuko gauza izan publikoki komentatzea. Arazoa erditik kendu, dida batean isilik ez dagoena kikiltzen saiatu.

Entrenatzaile eta jokalariek akatsak eduki dituzte. Zigortzekotan, jokalariek; ez da zuzena izango baina bai errazena!

Jokalarien errendimendu txarra izan dela diote. Gazteen esanetan, ikasketak prestatu beharrak eragindakoak zirela. "Ikasketarako epe batzuk daude!". Hain zaila al da hau sinestea? Ezin al da pentsatu, akatsa beste nonbait ere daitezkeela?

Ez diete ezta elkarrizketarako eskubiderik ere eman (eta honetarako, ez da pertsona hauekin oheratu behar, aditu behar zaie besterik ez!).

Eskubaloia indartzeko erabiltzen zen Granollers txapelketa (kirola, kultura, elkarkidetz...) eta talde honi ukatu egin

zaio aukera hau. Horrela konpontzen omen da denboraldi txar bateko jokabidea!!!

"Hau da Zuzendaritzakoen erabakia eta hik errespetatu behar dek! Hik isilik egon behar dek eta kitto!". Nik errespetatu bai, baina konpartitu ez!

Behar bada, norberak bere lanean hamaita urte pasa ditu halako inposaketak praktikatzeko eta ez du arazorik izan, agian. Baina hau ez da inoren lantegia, hau Kirol Elkarte bat da, eta hemen lana borondatez egiteko, inposaketa ez da bide zuzena!

Nik jokalaria eta gurasoekin elkarrizketa egiten dut. Horregatik ez dut uste "Jota atso zahar bat da" esan behar denik; ausartzen ez diren beste batzuk agian, zerbait ezkututzen ari dira. Hasi naiz galdetzen:

1. Gazte mailako taldean: jokalaria batek ez ditu onartzen bere taldean jarritako arauak. Entrenamenduetara azaltzeari uko egiten dio. Zergatik igotzen zaio mailaz? Ez gara bakarrik goiko mailara begiratzen

ariko (edozein prezioztara) ezta?

2. Goiko mailako taldean: jokalaria bat eta bere taldearen artean arazo bat dago. Bitartean jokalaria nire taldearekin entrenatzen hasten da eta zuzendaritzak ez deritso ondo, babesa ematen diotelako. Goiko mailara igotzea ez da babesa ematea nonbait, baina nire taldean entrenatzea bai!

3. Zergatik ez zaie jubenilei hitz egiteko eskubidea eman erabakia hartu baino lehen?

4. Denek jarrera hain txarra izan al dute nahiz eta talderik ez osatu Granollersen jokatzeko, zergatik ez daukate joateko esku-biderik?

5. Talde bezala zigortu edo saritu behar bada, taldea osatzen duten guztiak jokatu behar da horrela, ez jokalariekin bakarrik.

Entrenatzaile moduan: "Aurten jai!". Hitz horiekin agurtu naute. Arazoa erditik kendu ote?

Jon Gallego, Jota

“Etxebizitza gaia lehentasunen artean jartzea, hori da alternatiba garbiena”

Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzaren promozioak zein egoeran dauden azaltzeko, herri bilera antolatu zuen udal gobernuak kiroldegian. Hango azalpenak bildu genituen orriotan eta orain, osatze aldera, promozioak martxan jarri zireneko udal agintariengana jo dugu iritzi eske. Hauxe da Luismari Ormaetxea, Salome Portu eta Josune Urquia zinegotziekin izandako hartuemanaren emaitza.

NOAUA! Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitza babestuen zozketarako zerrendak, EA alkatetzan zen garaian bideratu ziren. Egungo udal gobernu taldeak dienez, “zerrendak goizegi ireki ziren”.

Erantzuna: Adierazpen horri buruz hiru xehetasun bereiztu behar ditugu.

Lehen: orduan etxebizitza sozialen beharra izugarria zen. 700 herritarrek adierazi zuten etxe baten beharra zutela, beraz, larritasun horren aurrean orduko udal gobernuak beharturik zegoen arin ibiltzera behar sozial horri erantzuteko.

Bigarrena: prozesuaren legaltasuna. Aurreko alkateak, Luismari Ormaetxeak, zozketa gauzatu ahal izateko haserako onarpenerako zerrenda prestatua utzi zuen. Egun alkate den Errekondo jaunak zerrenda horren onarpena atzeratu zuen, eta azkenik onartu. Nahiz eta hauteskunde kanpaina zerrenda-osatze prozesuarekin kontrakoak zela lau haizetara zabaldu.

Hirugarrena: orduko udal gobernu oso arin zebilen Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitza babestuen garapenean, nahiz eta ezker abertzaleak oso kritika zorrotzak zuzendu eta epaitegiatar eraman Ugartondoko garapena. Epaitegiek Udalarari eman diote arrazoai, ezker abertzalearen kaltetan.

Urte hauetan guztietan agintari berriek ezer gutxi egin dutelako oso urrun dardela dirudite orduko erabakiek, baina guztiak une egokian hartu ziren.

N. Promotoreen zailtasun ekonomiko ondoriotz eten omen dira negoziazioak. Etxebizitzaren premia handia da, ordea. Krisi egoera honen aurrean,



OLARRIONDO-UGARTONDOKO PROMOZIOAK GELDI DAUDE GAUR EGUN.

hasieran definitu zen etxebizitza-proiektua berrikusi beharko litzateke?

E: Kontua da zergatik utzi den 2009ra arte, proiektua eraikitzen hasi gabe usteltzen. Zergatik ez dira negoziazioak izan gobernu berria osatu eta hurrengo 9 hilabetetan? Zergatik Udala ez da mugitzen hasi, Ugartondoko auziaren aurrean, aurreko legegaldiko gobernuaren alde epaitegiak sententzia eman arte? Zer egin du Errekondo jaunak alkatetza hartu eta hurrengo 15 hilabetetan, krisia gordintan osoan ageri zenean?

Elkarrizketa hau sinatzen dugunon lan-martxa jarraitu balitz, krisia azaldu aurretik hitzarmen guztiak itxita izango genituen, konpromiso guztiak lotuta eta

inguru hori guztia eraikitzen.

Arazoa ez da promotoreek –Udala barne– etxeak egin nahi ez dituztela, baizik eta horretarako finantziarioa lortu ez ezean dabilzala; eta gauzak bere momentuan egin balira, finantziarioa izango zuten eta etxeak eraikitzen ariko ziren.

Etxebizitza-proiektua berrikusi? Egitekotan etxebizitza kopurua igoaz izan beharko luke, errentagarritasun gehiago emanez lurrari. Bide hori –edo beste aldaketa asmo bat– irekiko balitz, tramitazio administratiboak bakarrik oso luze joko luke eta hainbat herritarrek etxe bat izateko esperantza izpiak –epe laburrean– desagertu.

“Udalak finantziario aukerak agortu dituzte zabor biltzeta sistema berria dela-eta”

NOAUA! Udala eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlana planteatu da, agente urbanizatzaile bat jarritzeko. **Egokia iruditzen zaizue formula hori?**

E: Krisi egoera erakunde publikoetara ere iritsi da. Udalak finantziario aukerak agortu dituzte zabor biltzeta sistema berria dela-eta. Jaurlaritzak bere aurrekontuak, historian zehar lehen aldiz, murriztu beharko ditu datorren urtean.

Aukera hau porrotaren ardura politikoa beste batzuen gain uzteko asmoa beste batzuen gain uzteko asmoa besterik ez da. Alkateak, maiatzeko bere

agerraldian beste aukera batzuk ere aipatu zituen: “krisia gainditu arte itxaron”, “sustatzaileak beraien artean ados jarri daitezela”. Guztiak, udala erantzukizunetik libre uzten dute. Denek dute errua Udalak izan ezik. Hau ez da serioa.

Alternatiba garbia da: sustatzaileekin eseri, finantza erakundeekin eseri eta Udalak bere lehentasunen erdian etxebizitza gaia jartzea. Dedikazioa eta bitarteko ekonomikoak jarriaz, beste kontu batzuk albo batera utzita; eta denok ulertzen duzue zertaz ari garen.

“Argindarrarena aitzakia hutsa da”

NOAUA! Argindarraren arazoa aipatu zuen alkateak kiroldegian egin zuen batzar irekian. Zuen agintaldian, arazo honen berri ba al zenuten?

E: Gai hau aitzakia hutsa da. Argindarra etxeak amaitzerakoan eman beharreko zerbitzua da, eta hori etxeak egiten hasi eta urte batzuetara izaten da, “giltzak ematean”. Nahiko denbora beraz gai hau konpontzeko. Benetan irribarrea eragiten digu aitzakia hau erabiltzeak, beste behin ere, beste batzuei errua botatzeko.

Ezker abertzalearen agintaldian, Altuna jaunaren agintaldian, prestatu eta onartu ziren Arau Subsidiarioen akats larri bat izan zen. Gure arduraren zatia onartu behar dugu zeren garai hartan ez ginen horretaz ohartu, baina onartu behar dugu sorpresa desatsegina hartu genuela honen berri izan genuenean. Konponbideak bilatzen aritu ginen gure agintaldiaren amaieran baina arazo korapilatsuagoak bagenituen.

Lariago iruditzen zaigu Ugartondoko birpartzelazio proiektua eta urbanizaketaren proiektua guztiz garatuak ez egotea; lan hauek Udalaren ardurak baitira.

Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzak era horretan kalifikatuak izan daitezkeen bere inguru guztia urbanizatu behar dute. Horrek esan nahi du, orain atez ateko sistemaren bilketa gune bezala antolatua dagoen lur eremua –Pikaola– urbanizatu behar dela. Pikaolan etxebizitzak aurreikusita daude. Tramitazio administratibo guztiak eginak utzi genituen. “Xehetasun Azterlana” arte behar ziren proiektuak onartu ziren. Azterlan honen onarpenaren ondoren aurkeztu eta onartu daitezke eraikitze baimenak.

Zergatik ez dira etxe horiek egiten lurraren jabetza Udalarena baldin bada %60an?

Pikaolaren proiektua kaxoi batean sartu izan ez balitz, etxebizitzak ia bukatuta egongo ziren. Antzeko tramitazioa segi dute kaxkoko etxebizitza berriek, bukatzeaz daude ikus daitezkeenez.

Ezker abertzaleak ez ditu Olarriondoko eta Ugartondoko etxebizitzak nahi, eta ekintzek hala erakusten dute.

N. Bere garaian, formula hau planteatu zuen EAren udal gobernuak: lehen zozketa batean, aukeratuen (edo etxebizitza egokitu zaienen) zerrenda osatuko litzateke. Bigarren zozketa batean, etxebizitzak lehen zozketan aukeratuakoen artean banatuko lirateke. Denbora irabazteko egin zela ulertu zuten askok. Formula hori egokitzen jotzen duzue oraindik?

E: Gaur egun osatzen dugun korporazioaren zinegotzi guztiek ontzat ematen dugu formula hori. Inork ez du beste formularik planteatu. 2008ko apirilaren 29an, osoko udalbatzak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu zuten.

14 hilabete geroago, ez dakigu zozketa egingo den ala ez.

Horrelako atzerapenak injustizia asko sortzen ditu: zerrenda osatu zenean baldintzak betetzen zitzutenak agian orain ez dituzte beteketa eta alderantziz; edo gerta liteke etxebizitzak giltzak entregatzean –auskalo noiz– onuradunek 2005eko errentarekin lortu izana etxebizitza.

Zozketa hauteskundeetan erabiltzea leporatu ziguten orduan. Zozketa, irre-



ZERRENDAK OSATZEKO DEIALDIA EGIN ZEN BAINA ZOZKETA-PROZESUA ETENDA DAGO.

gularra, presazkoa eta ilegala proposatzea leporatu ziguten. Hori gezurra dela beraiek –Errekondoren udal gobernuak– frogatu dute zozketa prozesuarekin jarraitu duten heinean. Zein erraza den batzuentzat beltzetik zurira igarotzea.

“Ezker abertzaleak

ez du etxe berririk nahi Usurbilen”

NOAUA! Bi urte hauetan udal gobernuaren kudeaketa, zehazki, etxebizitza arloan, egokia izan dela uste duzue?

E: Erantzuna aski laburra da. Ez da gestiorik izan.

Olarriondo eta Ugartondo geldirik. Azken hauteskundeetako gai garrantzitsuetako bat etxebizitza hutsen arazoa izan zen. Ezker abertzalearen aburuz 353 omen zeuden. Herri osoa pintadez josi zuten zenbaki horrekin. Orain 100 eta 150 bitarteko kopurua izango ote den entzuten da. Etxebizitza hutsak bete ote dira? Konplexua den arazo honi soluzioa bilatzen hasteko inongo asmorik ez dute. Eta kito!

Munalurrako kalea eraberritzen, baina Zapaterok miloi bat euro oparitu dielako eta etxe horiek dituzten irisgarritasun arazoari –igogailuak– konponbidea planteatu gabe.

Zubietan ezer ez, Kalezarren ezer ez, Aginagan ezer ez, Txokoalden ezer ez, Kaxkoan ezer berririk ez.

Aurreko legegalditik eginak jaso dituzten Txaramuntoko etxebizitza sozialak zozketatu dituzte, baina begira non gauden, legegaldiaren bigarren zatian! Bi urteko atzerapena, beraz, pisu hauek eraikiak zeudenetik entregatzerako.

Berriro diogu. Ezker abertzaleak ez du etxe berririk egin nahi Usurbilen, ez zaie politikoki interesatzen.

Herri merkataritzari buruzko diagnostia, sektorea bultzatzeko elkarlanaren lehen urratsa

Herri merkataritza eta ostalaritza alorra bultzatu asmoz Siadeco etxeak Udalarentzat diagnosi bat burutu berri du. Emaizak, jendaurrean aurkeztu zituzten, pasa den uztailearen 16an. Helburu nagusia gauzatzeko, sektorea biziberritzeko alegia, herritar, alorreko langile eta Udalaren arteko elkarlanaren beharra dagoela azpimarratu zen aurkezpen saioan. Irailean bigarren faseari, plangintza abian jartzeari ekingo zaio.

Udalbatza aretoa herriko hainbat saltokietan lanean diharduten langileen topa lekuan bilakatu zen uztailearen 16an. Diagnostia osatzeko datu anitz bildu dituzte Siadecoko langileek, hein handi batean herritarrei eta sektoreko langileei egindako galdeketatan oinarrituta. Emaiztek informazio eta datu interesgarri ugari ematen dute, gerora burutu nahi den egitasmorako baliagarriak izango direnak.

Adibidez, diagnosiari esker jakin dezakegu usurbildarren erosketa ohiturak nolakoak diren. Herritarrek erosketak bizilekutik gertu, udalerrian bertan egiteko joera handitzen doala dirudi. Galdetutako herritar gehienek argi dute erosketak zergatik egin nahi dituzten Usurbilgo establezimenduetan. Hiru arrazoi nagusigatik; saltokiak gertu izateak suposatzen dien erosotasunagatik, dendarietikiko duten konfiantza eta fidelotasun mailagatik edota produktu eta zerbitzuetan aurkitzen duten kalitateagatik. Erosleek gehien eskertzen dituzten alderdiak dira horiek.

Establezimenduetako arduradunei egindako elkarriketetan ia guztiak euren lanarekin aurrera jarraitzeko asmoa ager-



UDALBATZA ARETOAN SALTOKIETAKO ARDURADUNAK, SIADECOREN AZALPENAK JARRAITZEN.

tu dute. Ez da ahaztu behar, aipatu sektoreak herriko enpleguan pisu nabarmena duela. Denda, ostalaritza eta bestelako zerbitzuen artean, 98 establezimendu guztira. 300 langiletik gorako enplegua Usurbilen (Urbil merkataritza-gunera kontuan hartu gabe).

Erosketa ohituren baldintzak

Herri merkataritza eta ostalaritzaren inguruko gorabeherak beste hainbat alorrekin lotura zuzena dute. Besteren artean, erosketa ohitura oso lotua dago biztanleriak herriko bizitzan duen parte hartzearekin. Udalerriri bateko biztanleen integrazio maila handiagoa baldin bada, herrian egindako kontsumoa ere haztea ekartzen du, diagnosiak argi utzi duenez.

Aisialdi ohiturek ere baldintza dezakete, erosketak han edo hemen egitea. Horregatik, aurkezpen ekitaldian argitzen zenez, garrantzitsua da merkataritza alorreko establezimenduen eta ostalaritzakoen eremuek bat egitea. Herri merkataritzak biziberritzeko aukerak bai

baititu; herria hazten ari da eta sektorea indartzeko formulak badaude, diagnosi-ko egileen arabera.

Giltzarri nagusietako bat, aurrera begira, Udalak, sektoreko langileek eta herritarrek burutu beharko duten elkarlana izango dela nabarmendu zuten. Eta horrekin batera, lagungarriak izan daitezkeen beste faktore batzuk aipatu behar. Herriak hazteko duen aukera hor dago, eta bestalde, baliagarria izan liteke, lehiakortasun maila handia nagusi den merkatu horretatik ahal den neurrian herriko saltokiak desberdintzea. Guztia, herri merkataritza indartu eta herritarrek erosketak bizi diren lekutik hurbil egitera erakartzeko.

Hurrengo fasea, uda eta gero

Diagnostia aurkeztuta, emaitzen berri emateko ekitaldian iragarri zuten, irailetik aurrera bigarren faseari ekingo zaio. Diagnostiak agerian utzi duen errealitatea abiapuntu gisa aintzakotzat hartuta, sektorean eragiteko plangintza bat prestatuko da.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiarenea 8
943 370 008

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

N!!!

gehiganni berezia
Santio jaiak

09
uztailak 24





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



Jai zoriontsuak Opa Dizkizue!!!

Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak



**34 urte
Pertsonak hezitzen**

**Heziketa zikloak
Erdi eta Goi mailakoak**

Administratiboa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Produkzio-zerbitzua eta manten.
Energia eta Ura

Etarte bidea, 9 (Zubieta) 20170 USURBIL
e-mail: eskola@lhusurbil.com

943 36 46 00
www.lhusurbil.com



BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

Logelak bare komunekin
Afarriak egunero
Bazkanak igande eta jaiegunetan

Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA - ZUBIETA

taberna-jatetxea
ALAMANDEGI

*Santio jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu*

943 36 28 49
ZUBIETA

UZTAILAK 24 - UZTAILAK 31

Santioak 2009



Sagardo Eguna, bigarrenez, uztailaren 26an lazko estreinako esperientzia errepikatzea erabaki du Jai Batzordeak. Hamar sagardo etxeetako edari preziatua dastatzeko modua izango da uztailaren 26an. Egun berean ordea, izango da bestelako nobedaderik ere. Bikotekako lehen bizikleta lasterketa antolatu baitu Jai Batzordeak. Ez da jaietako txapelketa bakarra izango. Jubilatuen Egunean, patata tortilla lehiaketa ere ospatuko baita. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak jarriko diote musika, datorren igandeari.



Uztailaren 28an, haurrak nagusi

Egun bete, primeran pasa eta lagunekin egoteko. Jai Batzordeak antolatuta, uztailaren 28an, goiz eta arratsalde, egun osorako ekitaldiez gozatu ahal izango dute gaztetxoek. Eta bazkaltzera etxera joan beharrik izan gabe. Norberak eramandakotik janez gero, trukean bazkal ondorengoa Jai Batzordeak banatuko du. Iragartzen dutenez, sorpresa eta guzti. Gorritiren animaliak, txokolate jana eta buruhandien korrika saioak izango dira, egunari amaiera emateko.



Musikaz blai, egunak argitu arte

Des-Kontrol, Mendeku Itxua eta Trikitake izango dira Santioetako gau pasako osagai musikal nagusiak, gauerdetik hasi eta goizaldera arte, txokolatea dastatu eta sokamuturra ailegatu hasi arte alegia.

Aurtengo berrikuntzen artean, aipatu puzgarriak jarriko dituztela uztailaren 30ean, arratsalde. Bi belaunaldiren arteko neurketa ere ikusi ahal izango da. Lehiarako jokia futbola aukeratuta, gazteen iaotasuna eta beteranoen esperientzia aurrez aurre jarriko dira Santioetan.



Gaupasa ondoren... Izerdi patsetan

San Inazio eguna, kirolaz blai datorkigu aurtengoan Zubietara. Proposamenen artean, Puntapax-Kanoe elkartekoek piraguan ibiltzeko luzatzen duten gonbita. Honez gain, errebote partida goizean eta 18:00etik aurrera herri kirol saioa. Hainbeste kirol proba artean, sabela jaki gozoz betetzeko aukera ere izango da; zikloro jana ere egun berean izango baita. Txartelak salgai egongo dira uztailaren 25era arte, Barazar eta Alamandegin. Prezioak honakoak: helduek 22 eurotan eta hurrek 11 eurotan.

UZTAILAK 24 - UZTAILAK 31
Santioak 2009



UZTAILAK 24 OSTIRALA

19:00 Jaien hasiera (buruhandi, txalaparta eta abar).

21:00 Herri afaria.

Ondoren, Kupela taldearekin dantzaldia.

**UZTAILAK 25 LARUNBATA
SANTIO EGUNA**

09:00 Esnadeia (Donostiako txistulari bandaren eskutik).

11:00 Meza nagusia.

11:30 Hamaiketakoa.

Ondoren, Soka-dantza.

18:00 XII. Trikitixa txapelketa. Ondoren, buruhandiak.

22:30 Bertsolariak: Uxue Alberdi, Unai Muñoa, Iker Zubeldia eta Iñigo Manzidor (Mantxi). Gai-jartzailea: Iker Iriarte.



00:00 Gaueko Itzalak taldearen kontzertua.

Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia.

**UZTAILAK 26 IGANDEA
JUBILATUEN EGUNA**

10:00 Meza.

11:00 Zubietako II. Sagardo Eguna.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

16:00 Mus txapelketa.

17:00 Zubietako bikotekako I. Bizikleta lasterketa.

18:00 Patata tortila lehiaketa

(Bakoitzak bere tresnak eta nahi dituen osagarriak ekarri ditzala).

Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariarekin afal ordura arte erromeria.

22:30 Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien jarraipena.

**UZTAILAK 27 ASTELEHENA
OILASKO BILTZAILEAK**

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

**UZTAILAK 28 ASTEARTEA
UMEEN EGUNA**

10:00 Jolasen hasiera.

14:00 Bazkaria (Bazkari eta guzti etorri behar da, bazkal ondorengo gure esku, sorpresa eta guzti).

16:00 Jolasen jarraipena.

18:00 Gorritiren showa.

19:30 Txokolatada.

Ondoren, buruhandiak.

**UZTAILAK 30 OSTEAGUNA
GAUPASA EGUNA**

16:00 Puzgarriak.

18:00 Futbito partida (Gazteak ez hain gazteen aurka).



00:00 Kontzertua: Mendeku Itxua, Des-Kontrol. Ondoren, Trikitake taldearekin dantzaldia.

**UZTAILAK 31 OSTIRALA
SAN INAZIO EGUNA**

06:00 Txokolatada.

07:00 Sokamuturra.

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

09:30 Puntapax Kanoe taldearekin piraguan ibiltzeko aukera Aliriko zubian.

10:30 Meza.

11:00 Errebote partida (Lokaleko finala).

14:00 Zikiro jana.



18:00 Herri kirolak (Lokotxa biltzea, trontza, korrika, arto aletzea, zaku karrera, sagar biltzea, txingak eta ingudea). Ondoren, Trikihots trikitilariarekin erromeria afal ordura arte.

22:30 Trikihots trikitilariarekin erromerian jarraitzeko aukera.

00:00 Jaien amaiera (Suziriak, suzko-zezena, etab.).

Ondoren, DJak (Isra. Remember, Garfi.Techouse, Santxo.Dance, Iñigo.Fusion eta Ibiza eta Madrileko dj gonbidatuekin).

N!!!

gehigarri berezia

Sanestebanak

09

abuztuak 1



Sanestebanak 2009



Ekiñe Olaizola, lehen musika gauean

Egutegiak urtero jaien egun ordena aldatzea dakar, derrigorrez. Aurtengo Sanestebanak larunbatez hasiko dira, Zubietako Santioak bukatu eta egun betera. Hilaren 1ean, Haurren Egunarekin ekingo diete jaiei Urdaiagan. Marrazki lehiaketa eta jolasetan parte hartu ahal izango dute goizez. Arratsalde, xexenak eta pottokak, buruhandi eta txokolate janarekin batera. Eguna amaitzeko goizaldera arte, musika, Zesatek eta Joxpa taldeekin. Haien aurretik, Ekiñe Olaizola herritarra igoko da oholza gainera. Bere bakarlari lana plaza-ratuko du, lehen aldiz, auzoko jaietan.



Herri afaria, bertsoez girotua

Eguraldiak lagunduta beti ere, abuztuko edozein iluntze Urdaiagako plazan igarotzea, lagun artean afaltzen, jaietz gozatzearekin batera, tentagarria bihurtzen da. Ez da plan txarra inondik inora; jaietan antolatu den herri afarira joatea. Baina jatekoa norberak eraman beharko du. Postrea, kafea eta kopa aldiz, Jai Batzordeko kideek banatuko dituzte. Eta afalosterako, eserlekutik mugitu ere egin gabe, lehen mailako bertsolari taldea oholza gainean; Maialen Lujanbio, Jexux Mari Arrieta eta Amets Arzallus, Toloxa gai jartzailearen esanetara. Urtero bezala bertso eder eta zirikatzaileak, Urdaiagako plazan.



Dantzarien saioa, San Esteban egunean

Astelehenarekin egokitu da aurtien San Esteban eguna. Meza nagusia eta dantzarien emanaldiaren ondoren, Txokoalderako bidea hartuko dute jubilatuek. Zumeta jabetxean bilduko dira bazkaritarako. Eta arratsalde partean, bidean gora Urdaiagara berriz ere, helduen arteko joko dibertigarri zein entretenigarriez gozatzera. Erromeri giroan, plaza dantzaleku bihurtuta amaituko dute eguna, Laja, Eguren eta Ziolarren eskutik.



Jaiak agurtzeko... Oilaskoak biltzera

Aurtien ere, Sanestebanak amaitzeko oilasko biltzera irtengo dira auzoko eta Urdaiagara gerturatuko diren gazteak. Goizean goiz, lehen eguzki printzak ikustera-ko gosalduta eta etxez etxeko birari ekingo diote, dantzari, kontu kontari eta parranda giroan murgilduta. Helmuga, Santueneko Aialde-Berrin izango dute guztiek, bazkaritarako bertan bilduko dira eta. Haiekin, akabo aurtengo Sanestebanak, 2010era arte.

Sanestebanak 2009



Abuztuak 1, larunbata HAURREN EGUNA

09:00 Txupinazoa.

11:00 Marrazki lehiaketa.

Ondoren, umeen jolasak.

Jarraian, buruhandiak.

16:00 Mus txapelketa.

17:30 Umeentzat xexenak eta pottokak. Jarraian, animatzen denarentzako taulatu-gaina libre dantzatzeko!

Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

23:00 Ekiñe Olaizolaren bakar-kako saioa. Jarraian, Zesatek taldearen kontzertua eta Joxparekin erromeria goizalderarte. Egun osoan zehar plater tiraketa.

Abuztuak 2, igandea

10:30 Meza. Ondoren, hamai-ketakoa eta toka txapelketa.

17:30 Herri kirolak.

21:00 Herri afaria (norberak ekarrita. Kafea, postrea eta kopa komisioren eskutik).

Ondoren, bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Toloxa. Ondoren, erromeria Unsain taldearekin.

Abuztuak 3, astelehena SAN ESTEBAN EGUNA

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, zahagi banaketa (Espumosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza

Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Zumeta jatetxean (Berriola Fagor eta Ingemarren eskutik).

17:30 Helduen arteko jokoak.

Ondoren, hirugihar banaketa eta Laja, Eguren eta Ziolarren laguntzaz erromeria aspertu arte.

Abuztuak 4, asteartea OILASKO BILTZAILE EGUNA

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Aialde-Berri sagardotegian.

18:00 Festen amaiera.

Oharra: Jai batzordeak ez du jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik hartuko.





SALTxiPI



ONDO PASA SANE STEBANAKI



Txokoalde z/g · USURBIL · 943 361 127 · 943 371 094

Imanol Azpiroz, San Markos Mankomunitateko lehendakariordea

“Gipuzkoak ezin du erraustegia asumitu”

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak igo egin du hondakinak zabortegetara eramateagatik udalei kobratzen dien tasa. Lehen, tonako batz besterik 70 euro ordaintzen zituzten udalek, eta orain ia 126 euro ordaindu beharko dituzte: 125,64 euro tonako, hain zuzen. “Igoera ia %80koa da, eta horrekin udalek errauste-planta finantzatzea nahi dute. Hori onartezina eta bidegabea da”, adierazi du Imanol Azpirozek, Usurbilgo zinegotzi, Zubietako alkate eta San Markos Mankomunitateko lehendakariordeak.

Mamitsua izan zen aurreko astean San Markos Mankomunitateko arduradunek eskaini zuten prentsurrekoa. Tasaren igoeraren bitartez, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak errauste-planta finantzatu nahi duela salatu zuten.

Atez ateko bilketa, ordea, sistemarik garbiena eta merkeena dela berretsi zuten.

TASEN IGOERAREN INGURUAN

“Gipuzkoako udalak Partzuergoaren gatibu ekonomikoak izatera kondenatzen ditu eredu honek”

Eta bestetik, Partzuergoak proposatzen duen eredu legez kanpokoa dela azaldu zuten. Europako Batzordearen zuzentarauak dioenez, 5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan zabor organikoa gaika bildu behar da. Eta Gipuzkoan, hori Usurbilen bakarrik egiten da.

Errauste-planta, “irrazionala”

San Markos Mankomunitatearen lehendakari Ricardo Ortegaren esanetan, “eredu honek Gipuzkoako udalak Partzuergoaren gatibu ekonomikoak izatera kondenatzen ditu 30 urtetarako, are gehiago egungo krisi ekonomiko kontuan hartuta”. Gogora ekarri zuten



IRUDIAN, SAN MARKOS MANKOMUNITATEKO ARDURADUNAK.

EUDELEk egunotan eman duen abisua, udalen egoera finantziero kaskarrari buruz.

Onartezina dela esan zuen Ricardo Ortegak, bere esanetan igoera hau (%80koa ia) Zubietako erraustegia finantzatzeko ezkutuko modua delako: “une honetan, azpiegitura irrazionala da, baita arrazoi ekonomikoengatik ere”.

Horretaz gain, “ezin da erraustu berrerabili daitekeena” gaineratu zuen eta Zabalgari (Bizkaia) erraustegiak sortu dituen osasun eta ingurugiro arazoak aipatu zituen, une honetan ikerketagaitza diren arazoak.

Helegitea jarriko dute


Partzuergoaren neurria eraso ekonomiko eta “medioambientala” dela adierazi zuen Imanol Azpirozek, San Markos Mankomunitateko lehendakari ordeak. Helegitea aurkeztuko zutela ere iragarri zuen. Eraso bikoitza dela esan zuen, erraustegia finantzatzeko gastuak finkoak direnez, zigortu egiten direlako gehiago birziklatzen duten herriak. “Zabor gutxiago sortzen dutenek, gehiago ordaindu beharko dute sortzen duten zabor tona bakoitzeko”, azaldu zuen Azpirozek; eta legez kanpokoa zela azpimarratu zuen.

“Bosgarren kontenedorearen sistemak ez du balio”

Ezin da zaborra nahastua biltzen jarraitu. Eta bosgarren kontenedorearen sistemak ere ez du balio, populazioaren zati kontzientziatuak bakarrik erantzuten baitu ondo sistema horretan, %5 edo %10 gehienera jota. Imanol Azpirozek hitzak dira. Eredu gisa, atez ateko Usurbilen lortu dituen emaitzak nabarmen dituzte: lehen 173 tona botatzen zituen zabortegetira, orain 25 tona bakarrik.

Atez ateko sistemaren emaitzak ikusita, Partzuergoak beldurra duela eta Usurbilgo bilketa sistemaren garapena blokeatu nahi duela nola edo hala. “Horregatik jarri du Gipuzkoan tarifa bakarren sistema eta horregatik aldatu ditu estatutuak berriki”, azaldu zuen Azpirozek. Gipuzkoako udalei eta herritarrei dei egin zien mugitzeko, beraien esku dagoelako atez ateko ezartzea. San Markos Mankomunitatearen laguntza izango dutela nabarmenduz.

Hizki-zopa !

	Lixiba	▼	Erraz hiltzen da	▼	Gerra ontzia	▼	Asturuak, zoriak	▼	Pluralean, suari dariona
	Horosko-poak		Irrika		Arrainen galbide		Pl., diru zaharra		
	*Kalezareko elkartea	▶							
Zutik, tente	▼	Maskurrak eratua	▶	▼					
Metal mota		Biderako jateko							
						Barazki hostotsuak	▶		
						Erriberagoitiko auzoa			
Titanioa	▶		Endak	▶					
Kirol mota			Hegazti mota						Lokarri sendoa
				Ez emeak	▶				Sufrea
				Zoro					Presio unitate
Nekadura	▶								
Ahari zikiratua					Ardi, hitz elkarketan	▶		Interjekzioa	▶
					Zintzo			Kontso bikoitza	▼
						Haiek berak	▶		
						Boroa			
Kolon-bokoa	▶								

*Kalezarreko kultur elkartearen izena zein da?

Soluzioa: 21. orrialdean

Mikel Laboaren omenezko eskultura

Maiatzaren 31n Usurbilgo herriak omenaldi hunkigarria egin zion Mikel Laboari. Omenaldiarekin batera, hainbat ekimen jarri ziren abian: plazaren izendapena, Erregistro Liburua... Eskultura bat ere jarriko zela iragarri zen.

Orain, Udala, Mikel Laboa Plazan eskultura jartzeko lehiaketa ateratzera doa. Deialdiaren helburua, artisten partehartzea bultzatzea da. Lehiaketara edonor aurkez daiteke. Eskulturaren gaia, dena den, begibistakoa da: Mikel Laboa.

Irabazleak 10.000 euroko saria jasoko

du. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek bi gutun-azal aurkeztu behar dituzte. Gutun-azal itxi batean eskaera orria eta norberari buruzko datuak jarri behar dira. Beste batean eskulturari buruzko txostena eta gehienez ere 50x50x50 zm maketa.

Lehiaketarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren abiatuko da. Baina lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. Oinarriak, hala ere, www.usurbil.net webgunean daude ikusgai. Informazio gehiagorako udal kultura sailarekin harremanetan jarri (943 371 999).

Iraila hasieran,

Lehen Topa Ezenika

Mahai inguru, tailer edota Mikuskizun irekiek osatuko dute Lehen Topa Ezenika, irailaren 4tik 6ra Usurbilen ospatuko dena. Antzerkigile eta zaletu guztiei zuzendutako ekimena da, Euskal Herriko arte eszenikoen alorrean mugitzen diren kideen artean eztabaida bultzatu eta iritziak trukatzeko. Udalaren laguntzaz, ArteDramak eta Txerriki Antzerki Taldeak antolatuta dute.

Abuztuaren 6tik aurrera, Oiardo kiroldegiko taberna zabalik

Iaz, Oiardo kiroldegia bazkalor-
duan ere irekitzen hasi ziren.
Aurten, herritarrei ahalik eta zer-
bitzu osoena eman asmoz, Udalak beste
urrats bat eman du; datorren abuztua-
ren 6tik aurrera, taberna zabalduko
dute. Oiardora kirol jardueraren bat
egitera doanak beraz, indarrak hartzeko
aukera izango du kirol instalakuntzeta-
tik irten baino lehen.

Udalak beharrezkotzat jotzen zuen
kiroldegiko kafetegia irekitzea. Hartara,
jan edana eskainiko duen kafetegira hur-
bildu ahal izango dira herritarrak, kirol
gunetik atera gabe. Gunea berritu dute
eta baita bertan lanean jardungo den per-
sona aukeratu ere. Hautaketa proze-
suan, kontuan hartu diren baldintzetako
bi, lan esperientzia eta euskara mendera-
tzea izan dira. Lehiaketara aurkeztu zire-
nen artean, azkenean, Zubietako
Realaren futbol zelaiko tabernatik dato-
rren oriotarra, Luis Mari Sarasua ardura-
tuko da kafetegiko lanaz.

NOAUA! Nortzuk izango dira zuen
bezero potentzialak?

Luis Mari Sarasua. Garrantsitsua da
ikustea, eguneroko jendeak kirola egitera
doanak, nola erantzuten duen. Kirola
bakarrik egitera joango den edo zerbait
hartzera gelditzen den. Abuztuan hasiko
gara eta hil oso mantsoa izango da. Ikusi
beharko da zer mugimendu duen.
Aukera guztiak eman eta ikusiko dugu
gero nola lan egingo dugun.

Lontxo Zubiria. Kiroldegia betiko
orduak itxi arren, aukera izango da afa-
riak emateko.

N. Nola definitu liteke irekiko den
gunea, taberna edo jatetxe gisa?

L. M. S. Kirola eskainiko dugun zerbi-
tzuarekin nahastu nahi nuke. Jatetxe
bezala baino, eskainiko dugun zerbitzua,
pintxo, ogitarteko eta plater konbinatuak
prestatzera bideratuagoa egongo da.
Aldez aurretik antolatutako afariak ere
egin litezke.

L. Z. Ia asmatzen dugun zerbitzu pro-



LONTXO ZUBIRIA, OIARDO KIROL PATRONATUKO KIDEA ETA UDAL ZINEGOTZIA
ETA LUIS MARI SARASUA, TABERNA BERE GAIN HARTUKO DUENA.

fesional txukun bat eskaintzen. Gero
dinamikak erakutsiko digu zer egin,
herritarren harreraren arabera.

N. Kiroldegia, herri gunera gertura-
tzeko bide bezala planteatzen duzue
taberna irekitzea?

L. Z. Helburua, ahalik eta zerbitzu
osatuena eskaintzea da. Behar hori ikus-
ten zen, joan nahi duenak goizean igeri-
lekutik atera eta gosaltzea adibidez.
Zerbitzuen hobetze bat egin nahi dugu.

L. M. S. Kiroldegitik kanpo dabilzan
herritarrak ere erakarri nahi genituzke,
baina hori epe luzeagorako lana izango
da, jendea ere ohitu egin behar baituzu.

N. Kafetegi gunea bera berritu da.
Tabernara hurbiltzen denak begi bistako

zer nolako aldaketak sumatuko ditu?

L. Z. Gunearen zati bat, manpara
batekin itxiko da. Zati bat kontsumitu
nahi duenak lasaiago egoteko eta beste
tarte bat geldituko da, igerilekura begi-
ra egon nahi duenak lasai egoteko. Ez
dugu jendea ezertara behartu nahi. Bi
aukerak bermatuko dira. Ia asmatzen
dugun.

N. Zubietatik zatoz, zenbateraino
aldatuko da zeure lan dinamika?

L. M. S. Astegunetan izango da des-
berdina, bertako jende geroz eta gehia-
go dagoenez, kirol taldeak ere oso ondo
dabilzaneez... Asteburuko lana hango
estilokoa izango da. Zubietako Realeko
futbol zelaiko tabernatik nator. Futbol
partidekin eta, han ohituta nago.

Irailean, II. Baxurde Krossa

Iazko probak izan zuen harrera iku-
sita, Baxurde Txikiko kideak kros-
saren bigarren edizioa prestatzeko lane-
tan murgilduta dabilza. Aurtengoan,
irailaren 20an ospatuko da, goizeko
10:30etik aurrera. Antolatzailak, 10,5
kilometroko ibilbidea osatzera anima-
tzen dituzte herritarrak. Laster zabaldu-

ko da izen emateko epea,
herrikrossa.com web orrialdean. 7 euro
aldez aurretik edota, egunean bertan,
proban parte hartzeko 10 euro ordain-
du beharko dira. Antolatzailak egungo
egoera ekonomikoa zein den aintzako-
tzat hartuta, laguntza eman duten guz-
tiak eskertu nahi dituzte.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25		13.30	13.40	13.45	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25		14.30	14.40	14.45	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25		15.30	15.40	15.45	16.10
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10
18.10	18.30	18.35	18.45		16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.10
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00*	08.20*	08.25*	08.35*	08.45*	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN					LARUNBAT GAUETAN				
00.00	>>	00.25	00.35	00.45	23.15	23.25	23.35	>>	00.00
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M	00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45	01.15	01.25	01.35	>>	02.00
04.00	>>	04.25	04.35	04.45	02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M	03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45	04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
					05.15	05.25	05.35	>>	06.00

▣ Iratze LANEGUNETAN berriz ▣ (M) Udazberritik 09/06/22-09/09/14 ▣ (M) Iratze berriz

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.01	06.11	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.31	06.41	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.01	07.11	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.31	07.41	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.01	08.11	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.31	08.41	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.01	09.11	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.01	10.11	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.01	11.11	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.01	12.11	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.31	12.41	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.01	13.11	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.31	13.41	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.01	14.11	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	* 14.17	14.31	14.41	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.01	15.11	15.20
* 15.38	15.45	15.54	16.09	* 15.17	15.31	15.41	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.01	16.11	16.20
* 16.38	16.45	16.54	17.09	* 16.17	16.31	16.41	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.01	17.11	17.20
* 17.38	17.45	17.54	18.09	* 17.17	17.31	17.41	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.01	18.11	18.20
* 18.38	18.45	18.54	19.09	* 18.17	18.31	18.41	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.01	19.11	19.20
* 19.38	19.45	19.54	20.09	* 19.17	19.31	19.41	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.01	20.11	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.01	21.11	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.01	22.11	22.20
22.40	22.46	22.55	23.10				

▣▣▣▣ Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ▣▣▣▣ Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 * Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ▣▣▣▣ Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 * Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ▣▣▣▣ Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN

Bezieren arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es ☎ atcliente@euskotren.es



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga
ASTELEHEN-OSTIRALERA 07:15- 7:45- 08:15- 08:45 09:15- 10:15- 11:15- 12:15 12:45- 13:15- 13:45- 14:15 14:45- 15:15- 16:15- 17:15 18:15- 18:45- 19:15- 19:45 20:15- 20:45- 21:15- 21:45 22:15	ASTELEHEN-OSTIRALERA 07:00- 7:30- 08:00- 08:30 09:00- 09:30- 10:30- 11:30 12:30- 13:00- 13:30- 14:00 14:30- 15:00- 15:30- 16:30 17:30- 18:30- 19:00- 19:30 20:00- 20:30- 21:00- 21:30 22:00
IGANDE-JAIEGUNETAN 15:15- 16:15- 17:15- 18:15 19:15- 20:15- 21:15- 22:15	IGANDE-JAIEGUNETAN 15:00- 16:00- 17:00- 18:00 19:00- 20:00- 21:00- 22:00

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA				
Usurbil	→ Urnieta			
USURBIL	SANTUENEA	ZUBIETA	LASARTE	URNIETA
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	08:45
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	14:00
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	20:00
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA				
Urnieta	→ Usurbil			
URNIETA	LASARTE	ZUBIETA	SANTUENEA	USURBIL
07:45	07:00	07:05	07:10	07:15
	08:00	08:05	08:10	08:15
	09:00	09:05	09:10	09:15
09:45	10:00			
	12:15	12:20	12:25	12:30
13:00	13:15	13:20	13:25	13:30
	14:15	14:20	14:25	14:30
15:00	15:15			
	18:15	18:20	18:25	18:30
19:00	19:15	19:20	19:25	19:30
	20:15	20:20	20:25	20:30
21:00	21:15			

TSST autobusak ZUBIETA • DONOSTIA

LANEGUNETAN	
Zubieta-Donostia	07:05/08:30(T) 10:15(T) 14:30(T) 19:15(T)
Donostia-Zubieta	07:15/08:00/ 12:45(T) 13:45/ 16:45
LARUNBATETAN	
Zubieta-Donostia	08:15(T) 12:45/ 18:15(T) 21:35(T)
Donostia-Zubieta	12:45(T) 14:30(T) 21:00(T)
JAIEGUNETAN	
Zubieta-Donostia	11:25(T) 13:30(T) 15:00(T) 21:35 (T)
Donostia-Zubieta	11:00(T) 13:00(T) 15:00(T) 21:00 (T)

☎ 943 36 17 41

BUS-TAXI

ASTELEHENETIK-Ostiralera						
ORRITOKAL	ORRITOKAL					
1	Usurbil kaskoa	7:30	10:30	13:00	15:30	19:00
2	Kalezar	7:32	10:32	13:02	15:32	19:02
3	Iartza	7:35	10:35	13:05	15:35	19:05
4	Ibarrala	7:38	10:38	13:08	15:38	19:08
5	Aratzain	7:42	10:42	13:12	15:42	19:12
6	Txarritan	7:45	10:45	13:15	15:45	19:15
7	Urdaira	7:48	10:48	13:18	15:48	19:18
8	Aginaga	7:55	10:55	13:25	15:55	19:25
9	Txokoalde	8:00	11:00	13:30	16:00	19:30
10	Urdaiaga	8:03	11:03	13:33	16:03	19:33
11	Santuenea	8:03	11:03	13:33	16:03	19:33
12	Usurbil kaskoa	8:05	11:05	13:38	1	

Agenda !!

Uztailak 24 - uztailak 31

- Santio jaiak Zubietan (egitaraua, 12. orrialdean ikusgai).

Abuztuak 1 - abuztuak 4

- Sanesteban jaiak Urdaia auzoan (egitaraua, 15. orrialdean).

Abuztuak 28 - abuztuak 30

- Atxegaldeko jaiak.

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 23, osteguna

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 24, ostirala

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 25, larunbata

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Uztailak 26, igandea

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 27, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6, Lasarte

Uztailak 28, asteartea

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 29, asteazkena

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 30, osteguna

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 31, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6, Lasarte

Abuztuak 1, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6, Lasarte Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Abuztuak 2, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietakalea, 7 Hernani 943 552 941

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Abuztuaren 28an,

bueltan datoz Atxegaldeko festak

Auzoko festen biran, Sanestebanak igarota hurrengo geltokia Atxegalden izango dugu. Auzo giroa indartu eta jaietan murgiltzeko aitzakia ugari egongo da. Hona hemen, Jai Batzordekoek helarazitako behin behineko egitaraua.



ABUZTU BUKAERAN, JAI-GIROA IZANGO DA ATXEGALDEN. EGITARAUA BEHIN BEHINEKOA DA.

ABUZTUAK 28, OSTIRALA

14:00 Batzordekideen bazkaria.

Ondoren, poteoa trikitixarekin.

19:30 Txupinazoa eta txosnaren irekiera. Jarraian, luntxa.

Gauean, musika kontzertua:

Hotzikara, Ze Esatek, Trikitake.

17:00 Magia ikuskizuna.

21:00 Herri afaria.

Gauean, musika kontzertua: Mendeku Itxua, Joxpa.

ABUZTUAK 29, LARUNBATA

11:00 Haurren jolasak.

14:00 Bazkaria (bakoitzak berea ekarrita, Jai Batzordeak kafea eta postrea jarriko ditu).

16:00 Mus txapelketa (izena ematea: 15:30-16:00).

ABUZTUAK 30, IGANDEA

12:00 Aizkolariak. Ondoren, haragi eta txorizo egosi banaketa.


17:00 Toka txapelketa.

18:00 Tortilla txapelketa.

19:00 Dantzaldia DJ Larrarekin.

23:00 Traka eta zezen suzkoa.

Soluzioa !!

	⊛	G	⊛	H	⊛	A	⊛	P	⊛		
	Z	O	D	I	A	K	O	A	K		
	⊛	B	E	L	M	O	N	T	E		
⊛	Z	⊛	M	A	S	K	U	R	T	U	A
R	U	B	I	D	I	O	⊛	A	Z	A	K
⊛	T	I	⊛	A	R	R	A	Z	A	K	⊛
J	U	D	O	⊛	A	R	R	A	K	⊛	S
⊛	N	E	K	E	⊛	A	R	T	⊛	B	O
Z	I	K	I	R	O	⊛	E	U	R	A	K
⊛	K	O	L	O	N	B	O	A	R	R	A

Soluzioa: Belmonte

Oporretara goaz, hurrengo alea irailan

Eskuarlean duzu ikasturte honetako azken NOAUA!. Abuztuaren bukaeran bueltatuko gara lanera. Hurrengo alea irailaren 11n argitaratuko du. Datorren alerako oharrak, albisteak,... edo dena delakoa, e-postaz bidali: erredakzioa@noaua.com

ALIPROX

Kale Nagusia 10
 ☎ 943 361 182
USURBIL

Kale nagusia, 10
 Telf: 943 37 33 48
 943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokatzen dugu Usurbilen. Berritua eta amueblatua. Abala eskatzen da. 678815247
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Gela argitsu bat alokairuan hartuko nuke. Tlf: 656 799 481.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak eskeitzeko toki itxia, garajea, telesteleku eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukaldea, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzekoa. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta

- alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industriale batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeen, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 943 368 574.
- Emakumea interna moduan lan egiteko eskaintzen da. 608 098 941.
- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.

- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Informatikoa naiz. Ordenagailuen edo informatika buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Raclet markako denda-karroa salgai (remolke kanpina). Oso egoera onean eta garajeen egondakoa. 2 ohe 1,90x1,50, baka, ordezko gurpila, Jockey gurpila eta arkoia ohe azpian. Ekonomikoa. 628652334.
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galde-tu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umezentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikititza erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660 / zapore@euskalnet.net



Zorionak Egoitz!

Uztairen 19an 3 urte beteko dituzu, zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak Nagore!

Uztairen 25ean 7 urte beteko dituzu. Muxu handi bat Asier, Eukene, Julen eta familiararen partez.

HILDAKOAK

Leonor Cal Troncoso uztairen 18an hil zen 48 urterekin, Pasaian



Concepcion Mugerza uztairen 13an hil zen 87 urterekin, Donostian



txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

plintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

LATAILLADE

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 383 348 · 609 888 021

ondo pasa oporretan

Datorren alea: irailak 11 ostirala

NOAUA! Astekaria

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta imprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

ERRAUSTEGIA:

Arriskuren bat jasango duten biztanleak: **494.191 biztanlek**

Gipuzkoako populazioaren **% 71 baino gehiagok**, maila ezberdinean erraustegiaren eragina jasango du, eta baita Nafarroako biztanleriaren zati batek ere.

Osasun-tekniko batzordea



Ondo pasa Santiotan!!

